URRILLA
24
ASTARTIA
BILBAO 1933

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua ... ... 6,00 irko. Irulle
Bilbao'atazkua 7,50 » »
Idazki-Itunmena 62,00 » urtez
Atzerrijetakuak 100,00 » »

BELDAYEN ITUNDUBA

XXI urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.514 zenbakija

Egunekua

Danak areyo

Eskumarantz begiratuten ba'dogu, areyuak ikusiko doguz. Eskeferantz begiratuta, be, areyuak.

Aurerantz begiratuten ba'dogu be, areyuak, dakusguz, ba, ta atserantz begiratuta be bai.

Areyo gustijen erdija, gu euzkotar jeltzaliok aurkitzen garan lekuba da.

Eta eskef-eskuma, atze ta aure, areyozko lauki osuaren erdija garalako, areyo ezagunak dagijezan arantzaen oyartzuna gure belafijetara eltzen da, ta jaurti oi-dabezan ostikadeak, bafiz, bijotzetara.

卐 卐 卐

Egun baten, eskeftafak, jeltzaliak garalako bakafik euren suizkilubetako berun-opilak jaurti euskubezan, eta eurakaz soñak zulotuta il-zorijan imiñi.

Onefariko bat, Mugire jelzalia ixan zan, beñola Matiko'ko batzokitik etxerantz joyela zozolistuak bidera urtenda, sutozka zauriluta iltzat laga eben jeltzale gaste zintzua.

Zauri areik bide zirala min eta samin aundijak jasan ondoren, gure mutil jeltzale zintzua, aurtemin il zan, soin-ufatze areik laga eutsen ondoren txafa bide zala il be ¡Gaxua!

Eiztarijaren suizkiluko sutotsen txingafak ikututa zugatz-adafeko txori obenge otzana lufteratu oi-dan antzian, Mugire, be, lufteratu zan, zozolisto gixa-eiztari koldafen suizkilubetako berun edendunak zauriluta lufera jausi be. ¡Ankefak!

Zozolistuak, eta oneikin bustaftuta dabiltzanak, eskefak dira: eskefak eta urtzingiak.

Eta eskeftafen ixenian, zauritu egiten gatubez; urtzingien ixenian, bafiz, zauritu, ta il...

卐 卐 卐

Oraln eskumarantz begiratu daigun, eta "erlejiñuaren" ixenian, eskumako eskubakaz damoskubena ikusi.

Larunbata gabian Bilbao'ko "fascistas" deritxuen eskotafak, egin ebena, ikusi zan: Euzko-Araudija deuseztuteko asmoz, euzko-abeftzalien kaltez sutoska asi.

Eta au, gustijau, eskotaf ixenagaz, uskurtzea, "erlejiñua" zabalduteko (?) egiten dabe.

Uskurtzearen belgundarijak ixateko, baña, lenengo kistaf-ikasbidia ikasi biaf da; ta gero, kistaf-ikasbidiak diñuana egin.

Kistaf-ikasbidiak bere agindubetako boskafen aginduban, diñoskuna, auxe da: iñof ez ilteko.

Il ezeze, gofotatu be ez egifeko, diñosku, arek, norberaren buruba lez, geidiarena be, mafe ixateko baño.

Eskotafen ixenaz, uskurtzea erlejiñua antxiñako "farizeoen" antzian beti espanetatik bera darijuela dabiltzazan, "fascista", karla-albontsa-integrista naste-bofaste orieik, Goikua'ren amaf agindubetako boskafen agindubak diñuan au, ¿egiten ete dabe...?

卐 卐 卐

Ene irakufle, euzkotafa, itxaftu zatez itxaftu, ta zeure begijok zabal-zabal dozuzala, zeure inguru-bira gustijetara begiratu egixu.

Eskumarantz begiratuten ba'dozu, areyuak ikusiko dozuz. Eskefera begiratuta, be, areyuak.

An, aufe-ziaf egun argiz atzipetuten zatubezanak, areyuak dozuz, eta atze-ziaf etoikeriz saltzen zatubezanak, be, areyuak.

¡Danak areyuak, irakufle...!

¿Adizkidia ikusi ta idoro gura dozula?

Orduban, irakufle, efdira begiratu, zure adizkide bakafa, erdijan dago-ta.

Adizkide au, jel dozu; jaun-Goikua eta Lagi-Zafa.

卐 卐 卐

Erdira begiratu daigun, ba, egija antxe ikusiko dogu-ta.

Egija ber-bera dan Josu, Urtzi'ren Semia, be, erdijan dakusgu, lapuf biren erdijan. Eskumatik daukana lapufa da, lapuf ona deritxana. Eskefetik daukana be, lapufa, lapuf txafa. Lapuf oneik eskefa ta eskumia dira, baña bijak lapufak... Eta lapuf bijon erdikua, Josu da: Josu Obengia, Josu Zuzena, Josu Eroslia; galzorijan aufkitzen zan efi gaxo bat gaizkatutiafen, eskoi ta eskeftafen gofoto ta obenak gurutzeratu, ta untzez gurutzian josita erail eben Josu.

Goralgafi, aintzagafi ta gufgafi yaku Josu'ren ixen Donea.

Beragafi, ezetsigafi ta gaiztetsigafi, Josu gurutzeratu ebezan eskef-eskumak.

Eskeftafak erail, nai eskumatafak erail, erailketea, beti da bat: beti gaiztetsigafija.

Beraz eskeftafen erailketeak gaiztetsigafijak ba-dira, eskotafenak be gaiztetsigafijak dira.

Txalogafija, ostera, beste au da: iñoreñari lotsa ona ixan, eta norberarena ondo zaindutia.

Jeltzaliok egiten doguna orixe da.

Goratuba ixan bedi Jel.

URIBITARTE'TAR IBON.

Izpar urtenenak



Jel = Alderdikidien batzarrak. = Bakaldarren agirija. = Mungia'ko bultzijak gixon bat erail. = Uzkudun = Carnera. = Gipuzkoa'ko urjolea. = Españarren itzaldijak. = Aldun = gayak. = Cordero'ren bake = nayak

Bizkai'ko Jel-alderdiko Uri-Buru-Batzafak batu ziran igandez datofen iganderako aldunak aututeko. Efi gustijetan ixan zan adoretasun gurena eta euren aldunak autu ebezan. Bilbao-Abando onetakuak ixan dira Galastegi'taf Eli eta Afegi'taf Pantzeska, abeftzale zintzuak. Beraz, datofen igandian batzar nagosija ixango da, aldun-batzafetarako aldun-gayak eukeratuteko.

Bizkai'ko Efkaldaf efadikalen alderdijuak argifaldu daun ingitxu baten bifaftez jakin dogu, alderdi onetakuak Euzko-araudi-aldez jokatuko dabela. Beriala asiko dira al dabe lana egiten, biafekuak ei-da araudi ori-ta.

Superunda, Kareaga'taf Pilare, Aranzibia, Lamiako'ko markeza, Hurtado-Saratxo, Cadagua, Alcalf Galiano, Areiltza, Etxebarria eta G. Kareaga jaun-andreak ixenpetuta, bakaldafak argifaldu dabe uaf bat. Araudijaren aldez jafi dira bakaldafok, be. Osuan eztagoz euzko-araudi onegaz, baa efijaren onerako dan ezkero, eurek be autafkija emongo dabe.

Mungia'ko bultzijak eran eben amabost ufteko gaste bat. Fernfndez Zabala eritxon. Bere lagun bategaz Mungia'ratu zan eta Bilbao'rantz etofi ziranian tunelez saftu ziran. Onetan bultzija eldu yaken ganera. Miar eritxon gastia auspez geratu zan, bestia bafiz orma-ertzan, baña bultzijak ez bekokijan eta bertan bera ilta geratu zan.

Bizkai'ko karlatafak eratuta, itzaldi batzuk ixan ziran Efigoitia efitxuban. Pagoaga eta bere lagunak itz-egin eben. Notin askorik etzan batu.

Siena'ko kirol-zelayan jokatu eben ukubilketako txapelketa, Carnera eta Uzkudun'ek. Mussolini be antxe ixan zan. Italiafak emon emonak egin eutson zan Uzkudur'i, ta Carnera ori geratu da Europa'ko txapeldun.

Bafiro, Efenderi eta Astigafaga efijak ondatu dauz urijoleak. Lengo ondamendijaren artzekua jazo da orain, be. Efenderi'ko ola batzutan urak igon dira lenago baño be geyago. Astigafaga'n batez-be kalte andijak ixan dira. Notiñik iton dan eztakigu.

Orio'ko patin baten itota idoro dabe gixon z·· bat. Igande iluntzian etxeruntz joyala-edo, Muxika'taf Joseba Laurentzi jausi zan patin ofen bafuban eta bertan itota geratu zan.

Cepas, Gipuzkoa'ko jaufle bafija juan da bere sendijaren bila. Avila'kua ei-da eta Donostia'n bixi gura leuke etxeko gustijakin.

Bizkai'ko aldundi-ixunar aldun batzuk geiu guraz ibili diranak ixilik dagoz, Madrid'etik esan ei-dabe, ba, naiko aldun-ixunik dagola orain artekuakaz be ta. Jaufliak ezer eztiño, Galano jauna be ez. Beraz, ba aldun-ixun bafik eztogu eukiko.

Acosta jaunak eztauka bafirik. Izpafkatijak iraundu eutsezan gauzai erantzun argirik ez eutsen emon, gaur biaf diranak atzalduko dauzala-ta.

Kirol-zalientzat eztago gauza bafirik. Athletic ostikolari-aldreak iru tantu sartu eutsozan Erandio'ri. Barakaldo'k eta Ondafeta'k jokatu eben eta lenenguak lau ta bigafenak bi bakafik saftu eutsezan alkafi.

Unión eta Donostia, ostera bakian geratu diran. Ez batak ez bestiak ezeben tantorik egin. Zaragoza'ri bafiz. Tolosa'k saftu eutsozan zortzi. Oidalakua.

Somofostro'ko auzonia dan El Carrascal inguruban etxe bat efe da. Iru mila laurleko balijo eben gauzak ezereztuta geratu dira. Zorijonez ezta ixan erijotzarik.

Euzko-Araudijaren aldez mintzatu dira Erkoreka, Bilbao'ko endoria eta Aretxaga, latari gastia, efadikalen alderdikua. Bijok dagoz betian geure araudija atera biar dala-ta. Ikusiko dogu, ba.

España'ko efiketeak ba-dabil gora-beraka. Marcelino Domingo jaunak itzaldi bat egin eban Madrid'en. Notintza andija batu zan gixon ofi entzuten, baña esan ebazanak ixafetan bixi diranentzat edo esan ebazan.

Avila'n itz-egin eban Largo Caballero jaunak. Efkala gora ta efkala bera ibili ostian, auteskunde oneik curentzat diralo atzaldu eutsen entzuliai. Lafi dabiltz sosolistuak aldun batzuk atera nayez.

Efadikala'be eren itzaldijak egin ebezan. Guerra del Río'k itz-egin eban Albacete'n. Biafeko gauzetan diruba eralgi biar zala atzaldu eban, ez aundikerijetan. Lerroux goraldu eban oidalez.

Martínez Barrios'ek itzaldi gurena egin eban Alicante'n. España'ko efkala, españaf gustijentzat dala esan eutsen entzuliai. Sosolistoen aufka gauza gogofak atzaldu ebazan.

Alba jaunak diñuanez, 1901'gafen uftetik adizkide ixun dira bera ta Lerroux eta gogo bat baño ezeuken gauza askotan Gixon ofegan ei-dauka itxaropenik andijena, iñok ezer egin ba-daike, Lerroux'ek egin daikelako.

Cambó'k itzaldi bat egin eban igandez Casals Democrático deritxon aretuan. Langile gustijen aldez zintzo mintzatu zan

Errijetatik

GERNIKA

UDALETXIAN. — Geure ziñegotziak Udaletxera biurtu dira, bafiro Ayuntamentura joan dira.

Etziran joaten ala? —Ez... ¿Etzenkian? Teotiko zoritxafekoak Altube jauna alkatetzatik kendu eta beste adizkide bat 500 lauflekogaz zigortau ebanian, geure ziñegotziak euren asafia erakutsi gura izan eben, eta U. B. B.'ren baimenagaz Udaletxetik iges-egin eben, lenengo beaf zan lez. Alkate ordekoa gastigatuaz.

Igaro zan astian, baña, abeftzale ziñegotziok Muga jaunagaz itz-egin eben, eta euren joanez ofegaz efiak kalterik euki eztayan Udaletxera biurtu dira.

Beaf zan lez asafia erakutsi da, ta naikoa zan.

Gernika'ren aldez orain lan ¡eta kiñu!

卐 卐 卐

Etzan gafantzi lafegikoa egubasteneko Udal-batzafa. Ara:

Ikastola-nagosi bafiko margo-lanak Zerbera'taf Pantzeskak egin daizala, 1.165 laufiekoan.

Efi-zain nagosi izan dan Gonzalez'tar Martin'ek adin askotxu be ba-daukola-ta, efi-zaintzan ogei urte bete dituzala-ta "efetiroa" eskatu dau, baña legez jaokan alogeragaz.

Ur gitxitxu ei-dago efi itufietan, eta ur bafia Baldatika'tik-edo zelan ekafi ikusi beaf litzakela, esan zan. Lunotaf ziñegotziek

euren alderdija etala audikijena bakafik langiliena baño atzaldu eban, ba.

Salamanca'tik aurkeztuko diran eskumaf aldun-gayak onexek dira: Gil Robles, Casanueva, Iamamie de Clairac, Castaño, Cimas Leal.

Zamora'n alkafekin jokatuko dira eskumafak eta efadikalak. Aldun-gayak onexek dira: Cid, Alba, Jagoba, Carrascal eta Torné.

Eskumafak eztira oindiño konpondu Madrid'en bertan. Batzuk eta bestiak, danak aldun-gai ixan gura leukie. Primo de Rivera zanaren semiak be urten gura leuke, ta asafe dabil beste batzuk baztertu gura leukielako.

Segovia'n be eskumafak alkaftuta duaz. Euren aldun-gaya aukeratu dabez. Cano Rueda, Lozoya'ko markeza, Fernández de Córdoba, Romero, Rebolledo, Martínez Nicolás eta González Parrado. Efadikalakaz batuta duaz.

Bizkai-Txindetxiak Madrid'en daukan tokirako, Ibáñez'taf Gilelma jaun argi ta euzkotafa aukeratu dau. An txindetxe-buruba ixango da. Orain afte emen, Bizkaya'n, egon da eta edonok goralduten ixan dau, gixon apal ta ona zalako.

Caceres'ko sosolistuak asafe dira, euren algun-gai aukeratzian eztiralako konpondu. Batzuk eta bestiak, gustijak aldun nai ixan dabe. Cordero juan ei-da efki aretara bakiak egifeko ustez.

baten aburuz, ur-ekafte ori bo... mila ogerleko kostauko ei-da.

Zorioncko "Instituto "edo ... dala-ta ainbeste; aurlekogaz ... "konprometidu" ezpaliz aor ... orain ur-ekarterako-ta diru ... lita. ¡Baña eskertafai be lagun ... ken da, orain diruok nundik ... ikusi egin biaf...

"Neu zeugandik libre nagoz"

EMAKUME A. BATZA.—Iluntzean Gernikaf Euzko-Ikas... tasunez bete zan.

Iragafi gendun lez, E. A. B... rizko Batzaf nagosia egin eban, emakumetxuak agintariai jarai... befeunen bat bildu ziran.

Efabagi abefkoi asko artu zi... euren aftian: Eskaratz-irakasle soñeko egintza, eta gexo-jelocia ipintia. Ikastiok, astian bakotxa etan izango dira.

Eta Batzafean esatea astu ... antza, baña, euzkeraz irakastea dabe, eta onen ikasteak, olan ... egunorokoak izango dira.

BATA TA BESTIA.—Dan... batian gabeko bederatzietan Ger... tzokijan alderdikide batzaf na... da, B. B. B.'ren agindua betez... ria autetsiteko.

Ioan zaiteze gusti-gustioz.

卐 卐 卐

Bere ikastaroko asterketak o... obeto atara-ta Gazteiz'tik biurtu eta Iriarte'taf Josebe neskatilea.

卐 卐 卐

Eleizakoak artuta dago, gaxo... 'taf Karmel, mutikoa, geure ba... Jokin'en anaya.

Len-bai-len osatuko al da.

卐 卐 卐

Gustiz osatuta kalian ikusi ... bafi'taf Efamun geure adizkide

卐 卐 卐

Astelena lagun gitxitxugaz ig...

Ofaitiño iluntzerako andik e... gaste talde edefak agertu zira... tzorduan Jon deunaren ... -beterik egon zan.

Urzelai-ta ikusten pelota-tokia... reanak oindiño pelotari ori ... diardue.

¡Jokatu be edefto jokatu ... berak! BELU-MU...

Z··· ·Z

EUZKO-ARAUDIA.—Zorion... edo estatutoaren gorabera orain...

Bi bide arkitzen dituzu: ... aurka, edo Euzkadi'ren alde.

Azaroa'ren 5'an, araudiaren ... tzen eztan euzkaldunak, 1839'... Espartero ta Maroto'k. Bergara... egin zuten ainbateko maltzurkeri... Ikusi, ta gogoan artuko dituzu... tik dijoazenak.

Abeftzaleak gogof ari dira ... gañontzekoak ere ez aldira ... geldituko noski.

¡Zarautz'tafak! ¡Haren bostga... -araudiaren alde botoa ematera...

EZKONTZA. — Igaro dan ... ezkondu ziran, Esnal'daf Imanol... -Zaf" basetxeko mutila, ta Kortaf... Efamuna "Benta,,'ko gastea.

Urte askotarako alkafekin izan...

ERIOTZA.—Gaxoaldi luze bat... ren il da, Maria Uranga, Ama... amona. G. B.

Irakufle, otoi bere gogo ald...

LARUNBATEKO ITZALDIA... tzera emana gendukan bezela, "... euzko-idazle azkafa gendun iñau... abeftzaleak izan beaf degun erakus... kulakoa egin zigun.

Bere egiak gogoan izango ald...

Batzokija bete bete egiten zuan ... nola tartetan ala azkenran, gogo... zuan. Artu befiro nereak.

AIZARNAZABAL'EN.—Abeft... de aundia zan igandez emendik, ta ... edefagaz pozturik etxeratu giñan ...

Euzko-ikufitzak bereganatu beza... lit ori.

BATZOKIRA, BATZOKIRA... deadarka nazu abeftkide. Lanera... rak baiditugu.

Ta ortan ez degu bik eta iru... beaf, abeftzale guziak baizik ...

¡Ia ba, Batzoki'ra egunero! BA...

ESKO IATZA

ERIOTZA.—Gaur goizeko la... da Elexakuak artuta Zabaleta'taf ... ne. G. B. Bere aide gustiei atseden... guntzen dotzagu. Emakume au, ... 'taf Joseba Jon jaunaren G. B. ... zan America-aldian ibilita, bere ... atseden-aldia igarota etofi zan he...

AUSO-LANAK.—Dirala-ta emen... alkatiaganako asafe dago. Gauza ... ei-ziran. Benipein gauf pregoya ... aginduaz auso-lanera juan gura ... edo ondo iruditzen etxayona agerra... gauf bertan amaiketatik amaiketa... udaletxian. Oin ze erabakitzen dira... egin beaf. Beste alde batetik be ... eskubidia daukela agintariak ofelako... ak eragiteko. Emen beaf genduke ... oiturak dakien abogadu edo artarikoren... auso-lau oneik erabakitzeko. Ia ba... lak, emetik urtenda ikastetxietan ... sayatu ikasten.

ZUÑU-MUÑU bat zabaldu da ... katiaren gogua ei da antxiñako ... en zubia egitia eskola zafetatik ... etara, norbaitek urten dagian. Nik ... lotxo (G. B.) ikusi neban bein baño ... gotan zubi ori egiten beretzako ... baño egokiago etofelako.

EUZKO-ARAUDIAREN alde ... ten juan dira basefietara gizon aldiz... tzuk. Gogof ari gera, ba, emen be ... do erantzungo deuskubela gagoz gure... sefitaf jatofok.

Papela be, iya, asko ez
Eta zer esateko be ez
Bukatzera nuatzue ba,
Naiz da dana egon aldrebes.

AÑITOKIETA

Kepa Paskasi ziñopa gotzaña, deuna

Valencia'n jayo edo-zan 1220'gafen urtetik ara. Gaste jaupaltza-ikaskixunak asi leuzan, eta asko aufteratu zan euretan. Emeretzi urteko zala, I Jauna, Arayon'go bakaldunak, Valencia'ko gotzain-txadoneko araukide egin leban. Arian ez-ei ziraukide-aulkijak jauparijai bakafik emoten abadeki edo jaupalgijai be, emoten yakezan, batez be jaupaltzarako lera ta gerkundia erakusten lebenian.

1241'gafen urtian edo, Paris'era jun zan bere ikaskixunak biribildu ta asakatuteko. An ikaslagun ixan leuzan Aquino'taf Toma eta Bagno-reggio'taf Bonabendur deun irakasliak. Gixa-jakintza irakasten jafi leben an, bere ikaskixunak amafu orduko; eta gero Urtzizti-irakasletza jadetsi, ta jaupaldu egin zan. Andik Roma'ra jun zan Doipuruba ikeften eta Doipurubaren oneskun-bila; eta gero España'ra. España'n, Valencia'n, araukidetzea jarein, eta eskafdunen artian ixena emon, eta lekaidetu zan. Lekaidekuntzea Valencia'n eginda, irakasten eta edasten asi zan. Barcelona'n jakintzea irakatsi leban: eta gero, Zaragoza'n Urtziztija. Batera edasten be jarduten leban Zaragoza'n. Zaragoza'n Jauna bakaldunak, Santxa bere semiaren askundia ukañi leutsan. Santxa au eskafdun lekaidetu zan gero; eta arik eta aldi Toledo'ko gotzain ixentau leben. Santxa'k arian, Kepa Paskasi, bere gastaroko irakasle ta arduradunari, dei egin leutsan bere ondora, eta jaufiza-lagun ixan leban. Augafik batenbatzuk Toledo'ko gotzain-laguntzat euki dabe, okef, baña, ezpai'zan ixan gotzain-lagun. Santxa 1275'gafen urtian il zanian, azke lotu zan Kepa Paskasi, eta edaskixunari, atxilotubak erostiari eta lekaidetza-zabalkundiari ekifen leutsen. España'ko egoalde-ziaf ibilita gero, Languedoc, Provenze, Liguria, Toscana-ta ziafkatu leuzan, Orvieto'ra eldu—an leguan arian IV Nikola Doipuruba— eta gero Roma'ra. Roma'tik España'ra egin leban atzera. Paris 'ziaf baña. Paris'en auzi ta eztabaida zofotza zan arian: Miren Neskutz deuna softzez garbija zan ala ezeko auzi eztabaidea. Kepa Paskasi'k softzezko garbitasuna aldeztu leban gogof eta zintzo, eta gero efijan zabaldu argiro.

Andik Portugal'eko Braga'ra jun zan, Trasmiras ixeneko lekaidetxera, eta lekaipuru ixentau leben. 1296'gafeneko urtafilan edo, Roma'n zan bafiro. IIIV Bonipagi'k arian, Jaen'go gotzain ixentau leban, eta Trasmiras'eko lekaipurutzea iru urtetan eukifeko agindu leutsan, Jaen'go gotzainefkija, txiro ta ufija zalarik, lekaipurutzako mozkiñetzaz Jaen'go txirotasuna jasoteko.

Jaen'era eldu, ta gotefkija zaintzen eta jaboten ekin leban. Gotefkija ikeftu leban; eta Josu-Kisto'tzaz ziñetsi-biafa, ta Mahoma ezetsi-nai-ta-eza edasten lebalako, Granada'ko bakaldunaren aginduz, atxilotu leben, eta Granada'ra eruan. Granada'ko bakaldunak, atxilotuba gotzaiña zala-ta, erospidez txindi naiko ukañiko leutsaela-ta, azke samaf izten leban; eta Kepa Paskasi'k, bere zelan-alango azkaldija gondurik, Josu-Kisto'rekiko ziñetsi-biafa, ekin eta ekin, edasten leban. Jakintsu-jakintsuba zan eta, mahumatafakin eta judafakin eztabaida zofotzak ixaten leuzan, eta asko-be-asko zuritu ta kistafbideratuten leuzan. Umiai eta mutiko neskatuai irakaspidia irakasten leutsen; txiro-landefak-eta mafakiro aftu, ta jasamen-biderako adoretuten leuzan. Batez be, Mahoma'ren guzuf-okefak azaldu ta estikatuz, idazti bafija idatzi ta zabaldu leban. Mahomatafak asefe bixi jafi leuzan; eta aspefkunde-egafiz, salatu leben bakaldunaren agefi, eta bakaldunari aren buruba eskatu leutsaen. Bakaldunak erailtza agin duba egin, eta 1300'gn. lotazila-6'gafenian, buruindu leben. Bere gorpuzkiñak Baeza'k eta Jaen'ek bakotxak beretzat, gura lebela, mando-itsu-soin jafi lebezan, mandua nora begira. Mandua Baeza'ra zuzendu zan, eta an dagoz Kepa Paskasi'ren gorpuzkiñak gufgafi gaufafte.

M. B. S.

Iritxijak

Euzko-Araudija

LASTEŔ auteskundeak izango ditugu, gure Euzko-Araudi edo "Estatutoa" ontzat aftzeko, eta ofetarako bizkof ibiltzen on izango litzake, bada egun gutxi gelditzen dirala, ezin dezakegu ukatu..., eta emengo euzkaldun guziai jakiñean ipintzea ere egoki, da, ofela guziak ezaguturik, gure araudi onek dakargigun gauz on gustiak, danok alkarturik, bota dezagun gure autafkia araudi onen alde. Egin beaf auek, abeftzalearenak dira.

Nola nai ere, uste degu efietan geyenak beintzat, araudiaren aldekoak izango dirala.

Ez dakigu "tradicionalista,,'k zer asmotakoak izango diran, baña gogoan eukiezkero, onein Euzkal-efia'ganeko maitasuna (ofela diote beintzat) ziuf gagoz, oneik ere Euzko-Eraudia'ri beren autafkia eskeñiko diotela, bestela Euzkal-efia'ren aurka jokatzen izango litzake, eta orduan ezin esango dute Euzkel-efiaren zaindari jatofak dirala, baizik "sasi "euzkaldunak dirala...

Baña. Euzko-Araudia, "laikoa" omen da? Eta "¡jakiña! karlistak ez dute nai, ezer ere, "laikoa,,'kin... naiz da Pradera jauna Tribunal de Garantías'erako autua izan, eta Tribunal de Garantías katolikoa al da... ez, baño... an irabazten dana... "katolikoa" dek... ¡A!

Diotenez, euzkal-efiaren alde, jokatzeko, beti "prest" daude, eskatzen dana, "laikoa" izan ez ezkero... Bai?

Bada guk, abeftzaleok, aspaldi onetan eskatzen deguna da, Euzkadi, Efoma'rekin bakafik, eren aftean konpondu dedila, eta Euzkadi Jaungoikua'ren mendean egon dezala, eta España'k ez dezala zer ikusik izan gurekin... Eta, au "laikoa" al da? Zergatik ez bada, guregana etofi? Eta, Guri, guk eskatzen diguna, ukatzen dutenak, zeintzuk dira? "Laikoak eta katolikoak" zuek danok, elkarturik, guri ukatzen zabiltzate guk eskatzen degun bidezko gauza au.

Baña, dana dala, utzi dezagun, beste egun baterako, egi auek, eta jun gaitezen arira, au da araudira.

Esan degunez, "laikoa" da, eta, kalterik egiten al dio, araudi onek, Erlijioari Ez noski, ez dio ezer ere egiten, egiten dion bitiña ere, mesede, zergatik, batere kexkarik gabe, esan dezakegu, emen "eskubiak" izango dirala, nausi, eta oneik gutxi ez bada ere, katolikotasunaren alde jokatuko dutela.

Eta, beste gauz bat, zer ajola dio naiz da "Araudi-laikoa", izan gure biotzak, gure izaera, katolikoa bada?

Ez dute afazoirik, araudi au, "Laikoa" dalako beren aufka dauzela, esanten dutela, oneik aitzakiak, beste ezer ez dira...

Ofegatik, gogoan euki, araudiaren aufka jutea, Euzkal-efiaren aurka jokatzea dala, eta lastef jakingo dirala, nortzuk diran Euzkal-efiaren aldekoak eta nof beren aurkakoak, eta orduan botoakin izentatua izango da esanaz. Ori "sasi" euzkelduna dek, orek Euzkal-efiaren aurka bota zian, bere autafkia...

Ez dedila ba, iñof gelditu, datofen ilean, 5'an bere autafkia, Euzko-Araudijaren alde bota barik.

AITZA.

Mañaria

LASTEŔ.— Euzko-Araudijatzazko auteskundiak ganian doguz. Datofen ilaren boskafena, (J. L.) euzkotafen ziutzotasuna dala bide, Euzkadi geure abefijari bere azkatasunaren zati bat lortu eragifeko eguna ixango dogu. Gafantziko eguna... Araudija lortu ala ez geure gain dagolako; euzko-seme zintzoen eta zintzo eztiranen egiñetan...

Geuk abeftzaliok beintzat, geure autafkijak Araudija'ren (Estatuto'aren) aldez emongo doguz bai? ta bestiak be ori egin dagijien aleginduko gara.

ERIJOTZA. — Igaroriko barikuban il zan Ikabaltzeta'taf Genare, "Ikabaltzeta-Beazkoa" basetxeko alabia 66 uftedun zala. Jaunak zeruan euki begi Sendijari atsekabian laguntzen dautzogu.

Erijotzak, aurten, geure efitxua safitxo ikertu dau; dan orduko amaika notin il dira ta. Efija osasuntsu dagonetan, bost edo sei baño eztira ilten.

GEXORIK.— Magunazelaya'taf Joseba'ren emaztia dan Ertzila'taf Eustoke anderea, lengo egunetan gexorik txafto aurkitzen ixan da; zorijonez baña, egunontan obarantza egin dau, ta osatuko dalakuan gagoz Arin eta ondo osatu ba Eustoke.

JUAN-ETOŔIJAK.—Bilbao'ra Juan ziran Arteaga'taf Luke, Magunazelaya'taf Aurkene ta Bizkafa'taf Katariñe anderak Algorta'tik etofi zan Jauregi'taf Andet abeŕkidia.

—Egun batzuk igaroten aurkitzen dira, Zugatza'taf Serapi ta Domeka Ibafengelua'ko mutil gastetxubak.

—Aldikadatxu bat igarota, aste ontan juan da Otxandiano'ra, Etxanobe'taf Kandide andera.

—Astelenez egon zan emen Ixurtza'ko txaunburu agufgafija dan Aretiourtena'taf Lon jauna.

ARTZAÑAK.—Emeko artzañak, aurtengo artuliak (lanak) astaftian saldu ebezan. Afobia, emeretzi laurlekoan. Igaz baño diru geitxugo artu obela-ta, asare etziran ixan.

Eta, beti lez, gustijak batera bazkari luzia jan eben. Eguerditik iluntzeraginokua.

GAZTAÑA-BATZEN.— Basetxietakuak gaztañak batzen zintzo diardube. Ta "San Lukas,,'en kakua" dala-ta, aste ontan gaztañarik geyenak etxeratu ditubez.

"San Lukas'en kakua" efi ontan ufila 'ko ego-axe indartsubari ereisten dautsogu.

MAÑARIKO.

Jaurt saspigarren ingoskira

Euzkotar umien aldez

"Sócrates, zuk diozuna egunero ikusten degu."—*Platón.*

(Alkaf-izketak)

ORAINDIK denbora gutxi dala, itzak itz bidia ekafita edo, galdetu nioten nere ikastolako umiai ia zer ete zan "hombre pundonoroso".

Ara emen erantzupenak.

Batek: "Un hombre genioso, que siempre tiene mal genio".

Beste batek: "Un hombre barboso como Esau".

Beste batek: "Un hombre malo, que mata a otro hombre".

Eta azkenengoak: "Un atracador".

Kirtenkeri abek umien buruan sortzeko bidea, era, edo efderaz esateko proceso mental, nik esango dizutet zer izan zan. Lenengoak uste izan zuan, "pundonoroso" itzaren durundiari begiratuta, euzkeraz esan oi degun "orixe da gizon puntosua,,'rekin zer ikusiren bat zuala, eta efderara al zuan eran bifuftu zuan: "hombre genioso, que tiene siempre mal genio".

Bigafenak befiz "pundonoroso" itzak puntakaz zer ikusiren bat izango zuala oldoztu zuan nonbait, eta punta askoduna, esan zuan ba... gizon bizartsua. "Un hombre barboso como Esau".

Irugafenak ez zuan bururik nekatu. "Pundonoroso" ori gauza ona etzala izango iruditu zitzayon eta beste gabe esan zuan "Un hombre malo, que mata a otro hombre".

Laugafenak, irugafenen iritzia entzun zuanean eta nik ezeztu ez niola ikusi zuanean, iritzi ori ontzat eman zuan, eta arek baño obetoago esatiagaitik esan zuan: "Un atracador" gauf egunian beste gizon iltzalerik ez da entzuten bada ta.

Ara emen nola kirtenkeri abek beren bide zuzenetik etofi ziran.

Beste egun batean, irakuften ari giñan liburuan ikusita galdetu nioten ia ete zekiten "hombre avaro" zer ete zan.

Eta danak au batetik erantzun ziraten efotako gizona zala.

Ni ez nintzan ikaratu batere au entzutiaz, au baño gauza aundiagoak entzutera eginda nago umiakin ta.

Baña gauza batek afitu ninduan, ume danak, ezta-baida gabe, au batetik gauza bat erantzutiak.

Erantzuera au argitu nairik, txikien ikastolar Juan nintzan eta ayeri ere galdetu nioten:

—¿Bai aldakizute euzkeraz "hombre avaro" zer dan?

Eta lenengotik batzuek bakafik baña beriala danak erantzun ziraten: —Bai andrea.

—¿Zer da ba?

—Efotako gizona.

Txikien irakaslariari esan nion: —Begira, emen zer dagoan argitu egin beaf degu. Nere ikastolako umeak eta zure ikastolakoak danak bat-batera erantzuten dirate "hombre avaro" efotako gizona dala, ta au nola leikian edo nundik aterazten duten jakin beaf degu.

Eta galdetu oni, ta galdetu ari, zirika eta zirika emendik, ara zerk erten zuan.

Nere ikastolatik bi kilometrora, beste efi bateko mugan efota bat dago.

Nik ez det ezagutzen iñoiz izan ez naizalako, bano nere ikastolako umeak, euren efiko efota baño ufiago eta erosoago daukielako, iriñen bila ara juaten dira.

Eta efota onek izena "Abaroa" omen du. Ara nundik atera zuten nere ikastolako umeak "hombre avaro" efotako gizona zala.

AÑITOKIETA